


Aretxabaleta,
1994eko uztailak 28

Aretxagazeta



Badatoz herriko jaixak

• *Portasoleko
jaiak*

• *Kirolak: Bixente
Etxeandia*

• *Hurretik:
Esperanza Altube*

ARETXABALETAKO
UDALA



ONDO PASA!!

GORA
ANDRAMAIXAK

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94.




Kaixo atxabaltarrok:

Ba datozela, ba datozela Andramaixak aurtan, nire lehen eta azken agur honetan zoriona eta pakea eskeini nahi dizuet batetik edo bestetik gure artean ez daudenak ere, bihotzean eukiko ditugu.

Ondo pasau Andramaixak.

Aitor Antxia Leturia (Alkatea)



Dagoeneko, abuztuan gaude; bertan ditugu oporrak, atsedena, eta hauekin batera gure Andramaixak.

Egun hauetan, atxabaltar asko joango da herri-tik, egunerokotasuna ahaztu nahirik. Hauetariko batzu Andramaixetarako itzuliko dira; txalo bero bat hauentzat. Askok izatea espero dut, honek, urtean zehar denen gustoa egingo duen egitarau bat prestatzen saiatzen diren, eta guztiok ere nahiko ahazturik ditugun, teknikariak animatu egingo bait ditu.

Beste alde batetik, beste batzu, nahi izan arren ere, ezingo dira gure artean egon; nere pentsamendua Andaluzia aldera doakit, han aurkitzen bait da, preso, gogokoen zuen tokitik, bolatokitik alegia, jaiarekin bat egiten zuen atxabaltar bat. Aurtan ez da gurekin egongo, ez eta ere kalejiran ibiliko; zuri Kepa agur berezi bat, eta gure artean laister izango zaitugulakoaren esperantza. Egingo den ekitaldi bakoitzean gogoan izango zaitugu.

Animo atxabaltarroi, eta 94ko Andramaixak ospatu nahi dituzuen guztioi. Ongi etorri.

GORA ANDRAMAIXAK

Felis Beltran de H. (Kultur batzordeburua)




Uztailaren 14an euskaldunon ikurra den ikurrinak 100 urte bete zituen. Egun haundi hori ospatzeko, Udaletxean ikurrina jarri zuten, baina Atxabaltako etxeetako balkoi askotan ere, ikurrinaren kolore gorri, berde eta zuriak protagonista izan ziren. Omenaldi polita jaso zuen gure ikurriñak uztailaren 14an.


Uztailaren 24 eta 25ean Koruetan Santiagoko jaiak izan genituen. Lehen egunean, ondo pasatzeko ekintza ugari antolatu ziren, besteak beste, haurren jolasak, mus txapelketa, emakumeentzako briska txapelketa, auzo afaria eta dantzaldia. Astelehenean, barriz, Santiago eguna izan zenez, meza egon zen bertako elizan. Ondoren, luntxa eta Elkorobarrutiarekin dantza egiteko aukera izan genuen. Gainera, haurren jolasak ere ez ziren falta izan. Giro aparta, beraz, Korueta aldean.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



Giro ona nagusi izan zen Portasoleko jaietan


A zelako jaiak Portasolekoak

Portasaleko jaiak izan genituen uztailaren 15etik 17ra bitartera. Jende mordo bat elkartu zen eta ondo pasatzeko ekintzaz beteriko egiraraia izan genuen. Jaiak eguakotxean, arratsaldeko 7etan, hasi ziren txupinazoaz eta egun horretan aipatzeko modukoa egon zen play back jaialdia. Hasi batean jaialdia Jose Maria Iñigok aurkeztu behar zuela uste bagenuen ere, ezin izan zenez etorri bere lekua Maite Blancok hartu zuen. Maite ederto moldatu zen aurkezle lanetan, eta bera bezain neska-mutik profesionalak bertan parte hartu zuten. Ikusleok behintzak barre algarra ede-

rrak bota genituen eta barreen ostean sari banaketa etorri zen; lehen postuan "Txikitron" nesken taldea geratu zen eta bigarren "Los esorcistak".

Zapatuan zezenak izan ziren protagonista, eta zezenekin batera toreatzaile lanetan ibili ziren guztiak. Batzuek zezenak sortzen duen beldurra kendu eta ausar-ausar zezenaren aurrean zer egin behar den erakutsi ziguten, beste batzuek barriz, sustoren bat ere hartu zuten, baina jakina sustoak besterik ez ziren izan. Mus txapelketak ere, urtero bezala, ez zuen kale egin eta muszaleak denbora luzean lehia bizian aritu zi-

ren. Azkenean onenak Andoni eta Jabi Bridiales anaiak izan ziren; bigarren, barriz, Manolo Lopez eta Jose Mari Izagirre sailkatu ziren. 9ak aldera afari auzokoia egon zen eta ostean Izadi taldearekin dantzaldia. Domekan besteak beste, Margo lehiaketa egon zen eta irabazlea Leire Lonbideren taldea izan zen. Xake txapelketan trebeena Iban Andres izan genuen, Borja Garitaoandia bigarren sailkatu zen eta bere anaia Arriet hirugarren. Aurtengo Portasoleko jaiak bukatu dira, dagoeneko. Orain beste urte bete itxoitea besterik ez zai-gu falta.



Zirkulazio aldaketan ondoren, kalearen plano

Zirkulazio aldaketak Santakurtz kalean

Atxabaltako Udalak, joan zen astean Santa kurtz kalean eta Otaioa kaleko transbersaletan zirkulazio aldaketa batzuk egin zituen.

Aldaketa hauek zirkulazioa hobetzeko eta inguruko aparkalekuak hobeto aprobetxatzeko egin dira.

Guzti honetarako Atxabaltako Udalak seinaleak ipini ditu eta aldaketa batzuk egon dira, beraz, errespetatzea eskatzen da.

Zabor bilketa

Oporrak direla eta, Atxabaltako Udalak honako hau adierazi gura du zabor bilketari dagokionez:

- Datorren abuztuan, bolumen handiko objektuak ez dira jasoko. Zerbitzu hori, ostera,

irailaren 23an, eguakotxean, izango da.


- Datorren uztailaren 29tik, eguena, Ederlaneko sarrera zubian bi kontenegailu ipiniko dira, bertan zaborrak uzteko.
- Abuztuan zehar, zapatu

eguerdian ez da zabor berezirik jasoko.

- Gainera, herriko paperontzietan zaborrik ez botatzea eskatzen da.

Gomendo guzti hauek bete tzea eskatzen da.

EGUZKIGRAF



**Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Camila Jauregik 15 urte ditu eta Eski akuatikoan Espainiako Txapelketan 3. postua lortu du. Txapelketa Kataluniako Castell de Fels-en jokatu zen. Camilak kategoria haundia-goko eskiatzaileekin hartu zuen parte, hirugarren tokia lortuz. Hau ikusita, etorkizun ona ikusten zaio Camilari eski akuatikoan.

Gainera, ez da txantxa atxalbatar batek eski akuatikoan horrelako emaitzak lortzea. Zorionak Camila eta hurrengoan ere horrelako notiziak eukitzea espero dugu.

Kirol-etxea

Datorren abuztuan oporrak direla eta, Kirol-etxea itxita egongo da hil osoan. Hau dela medio, jakinarazi gura dizuegu Kirol-etxekeo bazkide guztiek Arrasateko igerilekua erabiltzeko beharrezkoa dela Atxabaltako kirol-etxekeo bazkide txartela erakustea. Era berean, gogoraziko dizuegu, 6 urte behar duzueguz derri-gorrez behar dutela txartela, lehenbailehen egitea gomendatzen dizuegu.

Bizikleta martxa

150 lagun inguru elkartu ziren Deba erreka berreskuratzeko. Ekintza honen antolatzaileak, Atxabaltako Amilotx, Bergarako Mendia Bizirik, Eki eta Eguzki talde ekologistak izan ziren. Martxa honek goizeko 9,30etan izan zuen hasiera Atxabaltatik eta ondoren Debaraino joan zen.

Guzti hau EAEkoek instituzioei erreka berreskuratzeko plana idatz zezaten eskatuz.

Udalak bi langile kontratatu ditu

Aretxabaletako Udalak 2 langile kontratatu ditu 3 hilabetetarako: Clamorisa Sillero eta Iker Urrutia.

Abuztuaren lehen hasiko dira lanean eta urriak 31rarte jardungo dute peoi lanak egiten.

Bi kontratazio hauek INEM-ek eman dituen diru laguntzei esker egin ahal izan dira.

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S. A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55



Urkuluko Urtegiko urak fluorra izango du

Osakidetzearen baimena jasotzen dutenean, Urkuluko ura fluoratzen hasiko dira. Hilabete hauetan zenbait proba egiten ari dira eta datorren urterako Urkuluko urari fluorra botako diote.

Urari fluorra botatzeko kontua, Euskal Jaurlaritzak duela 4 urte ateratako lege baten ondorioz dator. Orduan erabaki zuten 30.000 pertsona baino gehiagoren artean ura banatzen duten urtegi-tako ura fluoratu egin behar zela. Urkuluko urtegitik ura

70.000 pertsonak jasotzen dugunez, Urkulun ere fluorra botatzeko instalakuntzak jartzen ari dira.

Dena dela, fluorraren inguruan iritzi desberdinak azaldu dira. Esaterako Deba Garaiko EKI taldeak fluorra kalte ugari eragiten duela eșan du; besteak beste, min erreumatikoak, sabel eta giharretako minak, egonezina, azalaren aldaketak eta gizentasuna. Guzti honegatik talde ekologistaren esanetan, fluorra produktu toxikoa eta arriskutsua da.

Bestalde, Haginetako Zerbitzu Komunitarioko zuzendariak adierazi du, urak berez fluorra daukala baina leku batzuetako urek behar baino gutxiago dutenez, kloroa botatzen den moduan fluorra ere bota egin behar zaiola. Honez gain, aipatu du osagai hori erabiltzen duten herrialde aurratuetan konprobatu denez, fluorraren erabilerak kariesen gutxitze nabarmena ekartzen duela eta ez duela bestelako kalterik eragiten.

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

Mobiliario
ARENAZA

*ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA*

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

Andramaixak puntu puntuan



Andramaixak, urtero moduan, abuztuaren 14an hasiko dira. Aurretik, egun batzuk izango ditugu oportetara joateko eta atxabaltar askok, dagoeneko, bidaiak prestatuta izango dituzte. Hala ere, jaietan fijoak direnek badakite 14rako etxean egon behar direla. Izan ere, 14an hasiko dira 4 egun iraungo duten herriko jaiak, hau da, Andramaixak.

Jaietako egitaraua gertu dago, falta den bakarra giroa da eta hori jartzen atxabaltarrok arduratu behar gara. Aurtengo jaietan ez dago nobedade haundirik beste urte batzutako jaiekin konparatzen badugu. Dena dela, beste urte batzutan ez bezala, aurten jaiak goizeko 10.30etan hasiko dira. Aipatzeko moduko beste datu bat, herri bazkaria da. Izan ere, orain arte bazkaria beti kuadrilek antolatu dute, baina aurten bazkaria prestatzeko gertu kuadrilarik agertu ez denez, Udal Kultura Batzordeak hartu du ardura hori. Beraz, bazkari barik ez gara geratuko, nahiz eta betiko kuadrilek ez antolatu. Kirolek ere euren protagonismoa izango dute jaietan, besteak beste, herri kirolak, txirrindulari lasterketa eta pilota partiduak ikusteko aukera izango dugu. Guzti hau antolatzeko Udal Kultur Batzordeak 5. 100. 000 ptako aurrekontua erabili du.

Esanak esan, jaiak gainean ditugu, orain guztion parte hartzea nahi eta nahiezkoa da jai ahaztezin batzuku pasatzeko. Ondo pasau Andramaixak.

14

DOMEKA Jai bezpera

DIANA

10,30 Aretxabaletako txistulariekin diana.

UMEENTZAT PARKEA

Goizeko 11etatik 1etara eta arratsaldeko 4,30etatik 8,30etara Atxabaltako plazan.

TRIKITILARIAK

Aretxabaletako trikitilariekin herriko plazan, ordu batetan.

MUS TXAPELKETA

XVI. Mus Txapelketa, 4,30etan. Izen ematea 4,15etan bukatuko da. Sariak izango dira: dirua, txapela eta trofeoak.

MEZA

Arratsaldeko 7,30etan. Eta ondoren Ama Birjinaren bederatzizurrenaren amaiera eta AGUR ERREGINA OSPETSUA.

ANDRAMARIJAIENHASIERA

Arratsaldeko 8,30etan Udalteixe aurrean IKURRIÑARI

AGURRA eta ondoren TXUPI-NAZOA.

DANTZALDIA

"Aldaba" musika taldearekin dantzaldia, 10etatik aurrera.

BOLO TXAPELKETA

11etatik aurrera, IX. Bolo Txapelketa.



15

ASTELEHENA, Andra Mari eguna

DIANA

10,30 Aretxabaletako txistulariekin diana.

BANDA

Zumaiako Udal Musika-bandaren emanaldia. Goizeko 1etatik 2,30etara eta arratsaldean 7etatik aurrera Zumaiako Banda-ekin dantzaldia.

UMEENTZAKO PARKEA

Goizeko 11etatik ordu 1etara

eta arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara.

KALEJIRA

"Mozoloak" txarangarekin kalejira. Arratsaldeko 5etatik aurrera.

ESKU PILOTA PARTIDUAK

Gaueko 11etan. Iturri gorri frontoian. Urretabizkai-Alonso Berraondo-Iriakezen aurka eta

Errasti anaiak Dani -Larrañagaren kontra.

DANTZALDIA

Koxka taldearekin, Herriko Plazan.

SUZKO ERRUERAK

Pilota partiduak bukatzean, Azbeko aparkalekutik suzko erruerak.

TXIRRINDULARITZA

Lehenengo eta bigarren mailako afizionatuentzat, Euskaldun Sarirako puntuagarri izango den 56. itzulia Leintz Bailerari. Goizeko 9etan.

MARRAZKI LEHIAKETA

0-14 urte bitarteko neska-mutilentzat. Goizeko 11etan. Gaia: Andramaixetako Suzko erruberrak.

HERRI KIROLAK

Eguerdiko ordu 1batean. 2 emakume aizkolari, 2 harrijaso tzaile: Goenatxo eta Migelxo Saralegi eta 5 metrotako altura ebaketa: Gabriel Saralegi.

KALEJIRA

"Incansables" txarangarekin

kalejira. Arratsaldeko 5etan.

ZEZENAK

Arratsaldeko 6etan.

PARKEA

Umeentzat eta helduentzat parkea. Arratsaldeko 8etatik 12etara.

DANTZALDIA

Gaueko 11etan "Intxausti" eta "Munduate" trikitilariekin.

PILOTA PARTIDUAK

Abuztuaren 15ean izandako partiduko irabazleak, elkarren kontra eta partiduaren galtzaileak berdin. Gaueko 10,45etatik aurrera.

ZEZEN SUZKOAK

Gaueko 12etan, herriko kaletatik.



17

EGUAZTENA, Jai amaiera

DIANA

10,30 Aretxabaletako txistulariekin diana.

KALEJIRA

"Ardoa Barrura" txarangarekin kalejira. Goizeko 11etan.

ZEZENAK

Goizeko 11,30etatik aurrera.

KALE ANTZERKIA

"Kukubiltxo" taldearen antzerkia kalean zehar. Goizeko 12,30etan.

KALEJIRA

"Ardoa Barrura" txarangarekin. Ordu letatik aurrera.

HERRI BAZKARIA

Iturrigorri frontoian 2,30etan. Menua: patatak errioxarerara, oilasko izter errea, letxuga entsaladarekin, Brazo gitanoa. Prezioa: 2.000 pzia. Txartelak: Arlutzen, Artanon eta Kultur etxean.

BITS FESTA

Arratsaldeko 5etan. Herriko plazan.

**KALEJIRA**

"Ardoa Barrura" txarangarekin kalejira, buruhandiak eta erraldoien laguntzarekin. Arratsaldeko 5,30etan.

ZEZENAK

Arratsaldeko 6,30etan.

POTEOA


"Danok Bat" txarangarekin. Arratsaldeko 7,30etan.

DANTZALDIA

Gaueko 10,30etatik goizalderarte, "Danok Bat" txarangarekin.

BITS-BAINUA

Herriko plazan, ordu letatik aurrera.



Uztail guztian, Arlutz futbito txapelketa ikusteko aukera izan dutenek, benetan ondo pasatu dute.

Arratsalde guztian partiduak, astebukaeretan baita. Txapelketa honek ere eman ditu onenak, hilabete guztian ibili ondoren, aste honetan finalak jokatuko dira. Guk ezin izango ditugu irabazleak zeintzuk diren jakin, Aretxagazetako azkenengo alea kaleratzen den azken eguna eguena izango delako. Irabazleak hurrengoko ale baten jarriko ditugu.

Baina behean, final laurdenetara sailkatu diren taldeen izenak ipini ditugu. Txapelketa honetan 25 taldek hartu dute parte eta azkenean, 8 talderen artean jokatuko da txapelketa.

Irabazleentzat sariak honako hauek izan dira: Igo. arentzat garaikurra eta afaria. Afaria Matikuan



izango da, 10- pertsonentzat. 2.narentzat garaikurra eta 5 kilo Txuleta eta 3. narentzat Langostino Kilo bat eta txanpana.

Guk ere honekin amaitutzat emango dugu, azken hilabeteotan, saskibaloia eta futbitoari eman diogun atal hau, eta hurrengoko urtean ere errepikatzea espero dugu.

Zorionak antolatzaileei.

Arlutz futbito Txapelketa

Sailkatuak

KARBUROS	GAME OVER
CBB 23	IRADI STS
LUIS ECEIZA B	DESCARRIAUS
ZINGILINPUNKA	NEW TEAM

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Bixente Etxeandia: UDAKo presidente barria

Nork ez du ezagutzen Bixente Etxeandia? Bixentek futbolaria odolean darama, urte asko eman ditu buru belarri futbolaren alde lan egiten. 15 urte zituela Deustuko Salesianosetara joan zen ikastera, 46. urtea zen eta UDA sortu berri zegoen. 15 urteko mutiko hura baloiarekin ondo moldatzen zen bazekien zer egin, jokalaria onaren itxura gutzia zuen eta horrela izan zen. 17 urtekin UDAn fitxatu zuen Bixentek. 3 urte Atxabaltako taldean egon ondoren 8 urte Gasteizko Alaves

taldean jokatu zuen. Gasteiztik Andaluziarako bidea hartu eta Granada taldeko jokalaria izan zen. Baina 1957ko irailaren 15ean Jaeneko "Victoria" futbol zelaian ezbeharrak izan zuen eta jokaldi madarikatu batean tibian eta peronean hautsi zizkieten. Lesio gogorra izan zuen orduan, eta barriz ere Atxabalta alderuntz etorri beharra izan zuen. Denbora gutxirako jakina, izan ere, lesioa izan eta gutxira Realak fitxatu zuen eta utzita Alavesera bidali zuten. Alavesetik Recreativo

de Huelvara, 2. mailako taldera. Gero Sestaotik ere pasa zen eta Bizkaitik Burgos aldera joan zitzaigun, Mirandesen bai jokalaria eta baita entrenatzaile lanak ere bete zituen. Bixentek jokalaria moduan azken urratsak Gasteizko 3. mailako talde batean eman zituen.

Nolanahi ere, Bixenteren historia ez da hemen bukatzen, entrenatzaile bezala curriculum handia baitauka. 68an entrenatzaile titulua atera eta UDA entrenatzen hasi zen. UDAtik Arrasatera joan eta bertan Mondra taldea gidatu zuen, ostera UDARA bueltatu eta hainbat urtetan herriko taldearen entrenatzaile lana betetzen jardun ondoren, Bergara eta Elgoibarreko futbol taldeetan ere lan bera bete zuen. Bixentek entrenatu duen azken taldea UDA izan zen. Beraz, Etxeandiak jokalaria, entrenatzaile eta direktibo lanak bete ditu UDAn. Aurten barriz, bere amets bat errealitate bihurtzea lortu du, hau da, bihotzeko UDA taldearen presidente izatea.

Amets polita baina gogorra era berean. Hala ere, Bixentek gauzak argi dauzka eta eskuartean dituen proiektuak kontatu dizkigu.


LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

94-95 denboraldia Bixente Etxeandiarretzat debuta izango da presidente lanetan. Futbolean dauden ia postu guztietatik pasa ondoren, berak dioen bezala presidente izateko ordua heldu zaio. Datozen bi urte hauetan, ez du lan makala Bixentek eta hori berak jakin bada-ki.



Ibarrako zelai zaharrak, zelai artifizialari utziko dio lekuko

Ibarrako zelaiak eman ditu bereak

• **Jokalari, entrenatzaile, direktibo eta orain presidente, zer bultzatuta?**

• Beti gustatu izan zait presidente izatea eta kontutan edukita norbaitek postu hori bete behar zuela, animatu eta hemen nauzue herriko taldearen presidente lanetan. Unea heldu zaidala uste dut eta pozik hartu dut presidentzia.

• **Azkenean ametsa bete duzu?**

• Bai, ametsa bete dutt eta pozik nago. Dena dela, gero ikusi beharko dut poz hori noraino helzen zaidan.

• **UDAKo zuzendaritza barria nola dago osatua?**

• Presidenteorde Angel Arriola dago. Hiru idazkari ditut, Iñaki Antxia, Idoia San Migel eta Angel Olea. Futbol delegatua Rafa Etxeandia izango da. Taldeko delegatua barriz, Xabi Etxebarria. Diru kontuak eta futbol koordinatzaile lanak Jose Luis Go-

rostiagak beteko ditu. Harrobiko futbolaren ardura Jose Luis Txintxurretaren eskutan utzi dugu. Pilota sailean Juan Jose Errasti ibiliko da eta txirrindulari saileko arduradun lana Felix Arresek beteko du. Bokalak ostera, Iñaki Berasaluze, J. Jose Berasaluze eta Lorenzo Vicente izango dira eta lehen aitatu dudan bezala presidentea ni neu izango naiz.

• **Harrobiko talde guztiek jarraituko dute?**

• Bai jakina, preferenteko taldeaz gain, I mailako erregionala, jubenilak eta nesken taldeak izango ditugu. Kadeteak, infantilak, bigarreneko jubenilak Almenekin elkar lanean aurrera aterako ditugu orain arte egin den moduan.

• **Zeintzuk izango dira entrenatzaileak?**

• Preferente mailakoa Gregorio Arrieta eta lehen erregionalekoa Garai. Neskena zein izango den oraindik ez dago zehaztuta.

• **Zuk beti talde sendoaren**

alde egin duzu apostu, ideia horrekin jarraitzen duzu?

• Ideia hori bultzatzea gustuko litzaidake, baina daukagun aurrekontua ikusita gatxa da. Gainera, teknikoek harrobi ona dugula esan didate eta preferentien talde ona egiteko nahikoa jokalaririk daudela. Beraz, dugunarekin aurrera egin behar dugu. Etxeko jokalariei ere aukera eman behar zaie.

• **Aurten soldatarik bai?**

• Ez, jokalariek iaz bezala prima onak jasoko dituzte baina soldatarik ez.

• **Aspirazioa?**

• Partidu guztiak irabaztea, baina hori ordua heltzen zaigunean ikusi beharko da.

• **Zelai artifiziala noizko?**

• Azarorako zelai barria inauguratzeko moduan egongo da, baldin eta obrak bide onetik badoaz. Beraz, hasieran UDAK Almenen jokatu du eta Ibarra barria egin ahala, hona etorriko gara.

• Egongo zara Andramaixetan?




Rosario Elorza
(Pentsionista)

Aurten, lehenengoko aldiz da ez naizela egongo. Beste urteetan betik egon izan naiz.



Puri Altube
(Langilea)

Jaingoikoak nahi baldin badu bai. Urtero izaten naiz, egunerako ez naiz etortzen baina bigarren egunerako bai.



Sotero Arenaza
(Jubilatua)

Bai, hemen izango naiz. Kanpotik zehar bueltatxoren bat emango dut, baina herriko jaixetan Atxabaltara bueltatuko naiz.



Felipa Arroyo
(Etxekoandrea)

Ez, ez naiz egongo. Extremadurara joango naiz oportretan hil osorako, beraz jai batzuegatik ez naiz etorriko.



Iñigo Zubia
(Ikaslea)

Bai, oportretan joango naiz, baina herriko jaietara etortzea gustatzen zait. Agian Andramaixa ostean berriz joango naiz oportretan.



Aitor Oianguren
(Ikaslea)

Bai, oportretan Jakara noa baina Andramaixak pasatzera etorriko naiz. Baliteke, jaiak pasatu ondoren berriz norabaitera joatea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA


Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Saria: 7.000 pztako materiala eros dezakezu Aitziber haur jantzi denda

**BAZKIDEEK
BAKARRIK IZANGO
DUTE JOKU BARRI
HONETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..



**AITZIBER
HAURRAK**



Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

Saioa Arando

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, JOSE ANTONIO ATXA LECETA. Bazkide -zenbakia: 145.

Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?



Erantzuna:
Izen-abizenak:
Helbidea:
Tfnoa:

Esperanza Altube

"Orduan diru gutxi eta giro handia zegoen"



1.- Gaztea zinenean, zeintzuk ziren herriko jaiak?

-Andramaixak, abuztuaren 15ean Amabirjinaren egunean hasten ziren eta 17an bukatu.

2.- Zer egoten zen?

- Gaztetxoan nintzenean, Andramari egunean Meza nagusia egoten zen eta egunean zehar txistua eta danbolinaz dantzan ibiltzen ginen. Gero, boluak, pilota partiduak eta bertsolariak ere egoten ziren. Gainera, musikoei herrikoek ordaintzen genienez, bazkal ostean etxez-etxe soinua jotzen ibiltzen ziren.

3.- Nagusiagoa zinenean?

- Gauzak aldatzen joan ziren.

Gerra ostean, Mondraueko Banda etortzen zen. 12etan mezatarra joaten ginen, gero Bandak ordu 2ak arte plazan jotzen zuten. Banda bukatuta, bazkaltzera. Orduan konbidatuak etxera ekartzeko ohitura zegoen eta Andramaixetan etxe ia guztietan konbidaturen bat egoten zen. Gure etxean gizona, Angel, ziklista izan zenez, ziklistak izaten genituen apupilo. Arratsaldean 4rak aldera pasakailea, umeentzako zinta karrearak eta barriro ere soinua 12ak arte, eta ordu horretan azken pasakailea jotzen zuten.

4.- Ze bazkari jaten zen jaietan?

- Ez zegoen janari berezirik. Normalean zopa, garbantxuak, aza. Etxeko oilaskoak eta arzoa esnearekin edo natilak. Edateko ura eta ardoa. Ardoa erosteko alondegira joaten ginen eta "saragizetatik" hartzen genuen.

5.- Jende asko etortzen zen Andramaixetara?

- Mondrau eta Eskoriatzako jende asko etortzen zen. Gu ere San Pedro eta San Juanetara joaten ginen eta etxeak erdi hutsik

geratzen zirenez, lapurrek osketako aprobeztatzen zuten, bueltan etxeren baten beti zeozer faltan egoten zen.

6.- Kanpotarrik bai?

- Gerra aurretik Bainuetxera Madrilera jende asko etortzen zen, lastozko sonbreruz gogortzen ditut nik, eta "Oyariza"nean fonda zegoenez, hor ere kanpotarrik egoten ziren.

7.- Gauetan ze ordutan etxera?

- 12ak edo ordu bata aldera. Lehen ez zegoen tabernarik eta sozietaterik orain letxe. Gero ipini ziren guzti horiek.

8.- Zezenik bazegoen?

- Gaztea nintzenean ez zezenik ez buruhandirik, geroago jarri ziren horrelako gauzak.

9.- Egun onena?

- Lehena Andramari eguna eta bigarrena San Roque. 3.ean musika merkeagoa izaten zen.

10.- Asko aldatu dira jaiak, ezta?

- Asko. Orain beste gauza batzuk egoten dira. Hala be, lehen gauza gutxierekin giro ederra egoten zen.

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
 ☎ 79 71 69

ARETXABALETA

ZARAIA
 TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

MITARTE
 GARAI

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa
 ☎ 79 17 51

OPORRAK !

Urte guztian lanean ibili eta gero, abuztuan oporrak hartuko ditugu. Beraz abuztuko hilabetean ez duzue Aretxagazeta zuen etxeetan jasoko. Irailean, ostera, zuekin egongo gara.

Irailaren 1an aterako dugun lehen alean, Andra Marietako bitxikeriak kontatuko dizkizuegu. Ea jende asko elkartzen garen Andra Maixetan, ondo pasatzen dugun eta gauza asko dugun kontetako zenbaki berezi horretan.

Besterik gabe ondo pasau oporrak eta bueltararte.

ARETXAZOKA

Lana

✓ Zure aulkia hondatu baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuz. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora.

Etxebizitza

✓ Etxebizitza alokatzen da Santander hiriburuan, (Sardine-ro ondoan). Abuzturako. Tfnoa: 79 49 15

✓ Iruñean pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 47 72

✓ Bi neska behar dira pisua osatzeko Algortan. Interesatuak deitu eguerdian eta 8etatik aurrera 77 08 40 telefonora.

Salerosketak

✓ Txakur pekines bat oparitzen da. Tfnoa: 79 89 91.

✓ Karro denda salgai. 6 plaza zatakoa. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 65 70.

✓ Bigarren eskuko gitarra elektrikoa eta anplifikadorea erosi nahi ditut, ahal bada egoera onean. Interesatuak bazaudete, deitu 79 32 03 telefono zenbakira.

**atxabaltarron aldizkaria
kalean ikusi ahal izateko
ezinbesteko kolaborazioa
eskainiko duzu.
Euskeraren onerako egin
zaitez bazkide.**

**Aretxagazeta Elkartea, Kultur-Elkartea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila**